

**2007/12/21 INFORMATZEN 4.ALEA****informatzen**

Hauek dira atzo 2007ko abenduaren 19an mahai negoziatzailean jorratu ziren gaiak:

**LEPa:** Honen inguruan LABek zera eskatu zuen:

- Gaur egun dauden **langileak egonkortzea**.
- **Frogak bat etortzea** haurreskoletan egiten den lan eta formakuntzarekin.
- Epe oso estuak direla eta, azterketa **data atzeratzea**.

Partzuergoak, bere aldetik, azterketa ez dela traumatikoa izango, gaur egun dagoen langilearen gehiengoa (ahal den neurrian) sartzea helburu duela eta azterketaren muina egiten dugun lanean oinarrituko dela aipatu zuen. Beraz, enpresak LEParen inguruan sindikatuekin negoziatzeko borondatea duela erakutsi digu.

**Lan Hitzarmena:**

LABek orain arte mantendu duen jarrera izan zuen mahaian eta punturik garrantzitsuenak berriro nabarmendu zituen:

- **200** lan egun
- **1480** ordu.
- Koordinatzaileentzat **denbora** gehiago (gela kopuruaren arabera) eta ordainsari espezifikoa.
- **Arreta** zuzena **6 ordukoa** izatea eta ordubeteko osagarria.

Honekin lotuta Partzuergoak egindako azken proposamenaren inguruko balorazioa egin genuen honako aspektu hauek azpimarratuz:

- **Txandakako egunak desagertaraztea** langilegoarengan sortzen duten zamagatik, gure helburu nagusia eskola egutegi bateratuaren aldeko konpromisoa berretsiz.
- Gelan lan egiteko **bikote hezitzailea**.

Hurrengo mahai negoziatzailea 2008ko urtarrilaren 24an izango dugu eta bertan gai hauen inguruko zehaztapen gehiago izango ditugu.

Jakin badakigu LEParen inguruko zurrumurruek badaudela langileen artean nahasteak eta ezinegonak sortzen ari direnak. LABetik **lasai** egoteko eta esamesei jaramonik ez egitea eskatzen dizuegu, dagoen **informazio guztia LABek heleraziko baitizue** orain arte bezala eta zalantza izatekotan egoitzetara deitu.

**ANIMOAK ETA URTE BERRI ON!**

**<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/haur>**

<b>Araban</b>	<b>Bizkaian</b>	<b>Gipuzkoan</b>	<b>Nafarroan</b>	<b>Iparraldean</b>
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 <b>irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org</b>	Rekalde Zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 <b>irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org</b>	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 <b>irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org</b>	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 <b>irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org</b>	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 <b>baiona@ labsindikatu.org</b>